
Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com


Jesus Altuna Etxabe

Berastegi, Gipuzkoa (1932)



Aurkibidea

Biografia



Berastegiko plazako Joxene etxean jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita Urrestillakoa. Lehen lau urteetan Madrilen egon ziren bizitzen, aitaren aparejadore lanarengatik. Uda herrian pasatzen zuten, eta gerrak Berastegin harrapatu zituen ama-semeak. Aitonaren etxean bizi izan ziren biak handik aurrera; autobus gidaria (eta postaria) zen hura. Bederatzi urte zituela, aita hil zitzaion Jesusi. Seme bakarra da. Berastegiko eskolan ibili zen zortzi urte bete arte, eta ondoren Tolosako eskolapioetan. Apaiz ikasketak egin zituen Gasteizen eta Donostian, eta gero Biologia ikasketak Madrilen eta Alemanian. Arkeologo ezaguna da, animalien hezurren azterketan aditua (arkeozoologia). Joxe Migel Barandiaranek aholkatuta hasi zuen bide hori. Elkarrekin ibili ziren indusketak egiten hainbat urtean, Lezetxikin eta Ekainen, besteak beste. Koro Mariezkurrena arkeologoarekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten. Barandiaran, historiaurrea, euskara... gai askori buruz jardun du; aitonak kontatzen zizkion bi ipuin ere kontatu zizkigun.

Zintak

BRS-040

- **Proiektua**: Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2012-03-02
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

BRS-041

- **Proiektua**: Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2012-03-02
- **Iraupena**: 73 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Ama gazterik alargunduta, aitonaren etxera bizitzera

- **Erref**: BRS-040/002
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:00:20. **Bukatu**: 00:02:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Berastegiko plazan jaioa, Joxene etxean. Ama bertakoa zen eta aita Urrestillakoa. Tolosan ezagutu zuten elkar. Aita aparejadorea zen, eta Madrilen bizi izan ziren lau urtean, gerra hasi zen arte. Aita han geratu zen. Gaixorik bueltatu zen Berastegira. Bederatzi urte zituela hil zitzaion aita. Seme bakarra da.

2. Aitona, autobus gidari eta postari

- **Erref**: BRS-040/003
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:02:26. **Bukatu**: 00:03:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:
Aitonak Berastegitik Tolosara zihoan autobusa gidatzen zuen, eta posta ere eramaten zuen. Mutikotan kartak partitzen ibiltzen zen baserriz baserri, oinez.

3. Berastegiko eskolan, maisu erdalduna

- **Erref**: BRS-040/004
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:03:13. **Bukatu**: 00:08:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Berastegiko maisua herritik bidali zuten, gerra hasi zenean. Katalana zen

maisu berria, eta erdaraz egiten zuen dena. Ez zuten tutik entenditzen, eta ezin asmatu ibiltzen ziren (anekdota). "Federico el botarate" liburua zuten eta "El Quijote" ere bai. Neskak maistrarekin zeuden. Lau maisu desberdin izan zituen. Sartzerakoan eta ateratzerakoan "Cara al sol" eta beste bi himno kantatu behar zituzten.

4. Umetako jolasak

- **Erref**: BRS-040/005
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:08:28. **Bukatu**: 00:12:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
"Flechas" eta "Pelayos" aldizkariak batu egin ziren. Umetan ez zen pelaiotakoa izan. Pilotan jokatzen zuten, "torniken" (harrapaketan), basurdeketan (ehiztariak, basurdeak eta zakurrak)... "Guardias y ladrones"-en antzekoa zen, baina aberatsagoa.

5. Umetako jostailuak

- **Erref**: BRS-040/006
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:12:10. **Bukatu**: 00:14:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Jostailu gutxi izaten zen orduan, baina berak zortea zuen, aitonak eramaten zizkiolako: trena izan zuen, mekanoa, etxeak egiteko egurrezko piezak... Ez zieten uzten baloiarekin ibiltzen. Eskuz egindako jostailuak. Txistua egiten zuten gaztainarekin.

6. Dotrina euskaraz

- **Erref**: BRS-040/007
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:14:05. **Bukatu**: 00:15:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Dotrina elizan ikasten zuten, euskaraz. Jaunartze txikia eta handia. Lau apaiz zeuden. Etxean otoitz egiten zuten, eta dotrina ere etxean ikasten zuten.

7. "Beraneanteekin" mendira

- **Erref**: BRS-040/009

- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:15:23. **Bukatu**: 00:17:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Oporrak

Laburpena:
Berastegi eta Lekunberri herri turistikoak ziren. Kanpotik etorritako umeekin, "beraneanteekin", mendira joaten ziren. Nola-hala hitz egiten zuten haiekin, erdaraz; anekdota kontatzen du.

8. Berastegiko kontuak

- **Erref**: BRS-040/010
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:17:34. **Bukatu**: 00:18:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Berastegiko kontuak. Peru eta Mariaren ipuina aipatzen du. Uli lepoan kokatutako sorginkeriari buruzkoa ere bazen.

9. Esteban lagunarekin

- **Erref**: BRS-040/012
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:19:08. **Bukatu**: 00:22:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Berastegin kanpoan ikasi zuten bakarrak izan ziren Esteban Garziarena laguna eta biak; Esteban Oronozera joan zen ikastera, eta bera Tolosara, eskolapiotara. Lagunekin asteburuetan egoten ziren. Haiek gutxi joaten ziren eskolara, baserrian lana zutelako. Estebanek eta berak etxola bat egin zuten gaztainondo batean, eta irakurtzera joaten ziren hara. "El conde Lucanor" liburua. Zeta harrak zituen Estebanek, eta prozesua ikusten egoten ziren. Igandetan nor bere lagunekin elkartzen zen.

10. Tolosara aitonarekin, autobusean

- **Erref**: BRS-040/013
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:22:45. **Bukatu**: 00:24:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:
Eskolapiotara aitonarekin joaten zen autobusez, eta osaba-izeben etxean bazkaltzen zuen. Aitonarekin bueltatzen zen Berastegira. Elurra egiten zuenean, oinez joaten zen, 11 kilometro, bezperan. Larunbatetan ere eskola zuten.

11. Tolosako eskolapioetan, gustura

- **Erref**: BRS-040/014
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:24:03. **Bukatu**: 00:27:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Eskolapiotako giroa. Batxilergoa egiteko prestatu zen han. Gasteizko seminariora joan zen gero. Batxilergoan Historiako liburuan euskaldunen sorrera begiratzen zuen, eta ez zuen ezer aurkitzen. Barandiarani buruz ere ez zekien ezer. "Los vascos en el siglo VIII" liburua irakurri zuen. Eskolapiotako irakasleak. Italianoa erakusten zuen fraide batek, eta ondo etorri zaio gerora.

12. Lehenengo bizikleta

- **Erref**: BRS-040/015
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:27:05. **Bukatu**: 00:29:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Mutikotan bizikleta izan zuen. Nesken maistrak oparitu zion, gurpilak arraroak zituelako eta ezin zituelako konpondu. Tolosara eraman zuen, konpontzera. 15-16 urterekin, BH bizikleta oparitu zioten berari eta lehengusuei.

13. Gasteizen eta Donostian, seminarioan

- **Erref**: BRS-040/016
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:29:24. **Bukatu**: 00:32:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Apaiz izateko bokazioa. 12 urterekin Gasteizera joan zen. Hotza eta gosea pasatu zituen han, seminarioan. Berogailurik ez zuten geletan. Etxekoei ogia eskatzen zien. Irakasle onak izan zituen, baina diziplina gogorra zen. Ordutegia. Azterketa asko zituzten, ahozkoak eta idatzizkoak. 11 urtetik 9 egin zituen Gasteizen, eta Donostian beste biak. Han giro hobea zegoen.

14. Natur Zientzien zalea

- **Erref**: BRS-040/018
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:32:55. **Bukatu**: 00:34:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Oso irakasle ona izan zuen Natur Zientzietan, Gasteizen: Don Leoncio Arabiotorre. Don Jose Migel Barandiaranen laguna zen. Harremana izan zuen gerora ere. Biologia ikastera joan zen, Madrilera.

15. Barandiaranen taldea, apaiztegian

- **Erref**: BRS-040/019
- **Iraupena**: 0:04:37. **Hasi**: 00:34:08. **Bukatu**: 00:38:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Barandiaran irakasle egon zenean, giro eskasa zegoen apaiztegian. Lau irakasle elkartu ziren, eta bilerak egiten zituzten: Manuel Lekuona, Antonio Pildain eta Don Leoncio. Gerra etorri zenean, banandu egin ziren. Barandiaran Iparraldera joan zen; bueltan, Lekuonarekin harreman handia izan zuen. Lekuonarekin eta Barandiaranekin ibilaldiak egiten zituen berak.

16. Lekuonarekin eta Barandiaranekin

- **Erref**: BRS-040/020
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:38:45. **Bukatu**: 00:40:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Don Manuel Lekuona jale ona zen; Barandiaran, berriz, ez. Janariarekin lotutako bi anekdota kontatzen ditu.

17. Barandiarani jarri zizkioten oztopoak

- **Erref**: BRS-040/021
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:40:27. **Bukatu**: 00:41:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Barandiaranek ez zuen erraztasunik izan apaiztegian, bere ikerketak egiteko. Zientzia profanoak zirela esaten zioten, txorakeriak zirela. Don Lorenzo Bereziartua erretoreak esan zuena.

18. Barandiaranek gomendatutako bidea

- **Erref**: BRS-040/022
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:41:45. **Bukatu**: 00:44:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Barandiaran nola ezagutu zuen, Donostiako seminarioan. Hitzaldia eman zien. 1953an bueltatu zen Saratik. Madrilen ikasten zegoela, espeziearen sorrera interesatzen zitzaion, eta Barandiaranengana jo zuen. Lezetxikin eta Landarbason zebilen Barandiaran, eta ahrekin hasi zen indusketak egiten. Telesforo Aranzadik giza hezurrak aztertzen zituen, baina abereen hezurrak inork ez; Barandiaranek bide horri heltzeko aholkatu zion. Halaxe hasi zen, Madrilen bertan, hezurrak klasifikatzen. Tesia horren inguruan egin zuen.

19. Tesia egiteko zailtasunak, animalien hezurrena ikertu gabeko eremua zelako

- **Erref**: BRS-040/023
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:44:13. **Bukatu**: 00:48:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Animalien hezurrena ikertu gabeko eremua zen. Izan zituen zailtasunak kontatzen ditu; bere tesi zuzendariak ere ez zekien gaiari buruz. Alemaniara joan zen; han askoz aurreratuago zeuden. Abere hezurrak jasotzen hasi zen, Vesparekin hara eta hona. Seat 600 batekin ibiltzen ziren emaztea eta biak ondoren. Afrikara ere joan zen hezur bila.

20. Barandiaran eta bere ikasleak

- **Erref**: BRS-040/024
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:48:05. **Bukatu**: 00:52:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Indusketak nola izaten ziren lehen. Barandiaran eta biak ibiltzen ziren sarri. Lo ere elkarrekin egiten zuten. Garai hartako metodoak; gerra aurretik eta ondoren diferenteak ziren. Gai askori buruz hitz egiten zuten. Inazio Barandiaran, Llanos eta Apellaniz ere batu zitzaizkien; haiei buruz hitz egiten du. Lezetxiki, Aizpitarte, Marizulo eta Ekain. Barandiaran 85 urterekin erretiratu zen kobazuloetatik, eta berak jarraitu zuen indusketak zuzentzen. Idazten eta argitaratzen jarraitu zuen, 100 urtera arte.

21. Barandiaranen izaera eta lana

- **Erref**: BRS-040/025
- **Iraupena**: 0:04:27. **Hasi**: 00:52:50. **Bukatu**: 00:57:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak

Laburpena:
Barandiaran atsegina zen, beti laguntzeko prest. Oso langilea zen. Beti lanpetuta zegoen, baina entzuteko prest. Austeroa eta zorrotza lanean. Etnografia lana. Igandetan baserrietara joaten ziren, Aramaiora, ipuinak jasotzera. Zein estrategia erabiltzen zuen Barandiaranek, nahi zuena jasotzeko; lehenengo entzun egiten zuen, eta gero berriz kontatzeko eskatzen zuen, eta esandakoak jasotzen, idatziz. Grabagailurik ez zegoen orduan. Barandiaranek jaso izan ez balitu, galdu egingo ziren. "Barandiaranek gauza asko lapurtu dizkio heriotzari".

22. Barandiaranen lehen lanak; Breuilekin izandako harremana

- **Erref**: BRS-040/026
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:57:17. **Bukatu**: 01:01:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak

Laburpena:
1920. urtean argitaratu zuen lan bat Barandiaranek. Vienako etnologo famatu batek, Schmidtek, jardunaldi batzuetara gonbidatu zuen. Antzinako euskaldunen erlijioari buruzko testua prestatu zuen. Henri Breuil Pariseko prehistoriagile sonatuari Barandiaranek 1918an idatzitako hitzaldia iritsi

zitzaion eskuetara (aurrez bera ibilia zen indusketak egiten Euskal Herrian), eta idatzi egin zion. Aurkitutako gauza batzuk ere eman zizkion. Barandiaran 1917an hasi zen historiarreko kontuak aztertzen.

23. Schmidt etnologoa eta Barandiaran

- **Erref**: BRS-040/027
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:01:42. **Bukatu**: 01:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak

Laburpena:
Vienako Wilhelm Schmidt (1868-1914) etnologoa fraidea zen, eta misiolariei bidaltzen zizkien galdetegiak. Informazio ugari jaso zuen, eta Jainkoaren sorrerari buruzko lanak argitaratu zituen. Barandiaranek Euskal Herrira egokitu zituen galdetegi haiek.

24. Barandiaran, infernuko etsaiarekin ere lanean

- **Erref**: BRS-040/029
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 01:03:27. **Bukatu**: 01:06:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Barandiaran Saran egon zeneko kontuak. Pirineotako megalitoen katalogoa eskatu zion Alemaniako gobernuak, eta salbokondukto berezia eman zioten mendiz mendi ibiltzeko. Ondo ordaindu zioten. Opusean ere eman zituen eskolak.

25. Judu bati ihes egiten lagundu zion Barandiaranek

- **Erref**: BRS-040/030
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 01:06:43. **Bukatu**: 01:09:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Judu bati ihes egiten lagundu zion behin Barandiaranek: monagilo moduan eraman zuen mugaz bestaldera, 1942an. Israelgo estatua sortu zenean, eskutitz bat bidali zion, eskerrak ematen; gobernu berriko 1. ministroa zen.

26. Israel sortu zeneko kontuak

- **Erref**: BRS-040/032
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:09:22. **Bukatu**: 01:10:45

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Israelgo estatua sortzear zela, Erresuma Batuko politikari batek Australia eskaini zien juduei, han lur asko zutela eta. Israeldar batek eman zuen erantzuna kontatzen du.

27. Euskara, historiaurreko altxorra

- **Erref**: BRS-041/002
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:00:33. **Bukatu**: 00:03:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Euskara da historiaurreko ondare bizi bakarra, eta zaindu egin behar da. Ezin da jakin Ekaingo kobazuloetan bizi ziren gizakiek zer pentsatzen zuten, zer sentitzen zuten. Baina euskaraz hitz egiten zuten. Brontze garaikoa da, gutxienez, euskara pre-indoeuroparra delako.

28. Hizkuntza indoeuroparren indarra eta iberoa

- **Erref**: BRS-041/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:03:47. **Bukatu**: 00:06:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Hizkuntza indoeuroparren indarra. Euskara inguratuta zegoen. Bordelerako bidean, Gipuzkoako kostaldean egiten zuten lo. Iberoa desagertu egin zen, baina euskara ez. Euskararen jatorriari buruzko teoriak. Vasco-iberismoaren teoria hankamotza da, euskarak ez baitu balio iberoa ulertzeko.

29. Nondik dator euskara?

- **Erref**: BRS-041/004
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:06:02. **Bukatu**: 00:07:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskara nondik datorren ezin da jakin. Oteizaren teoria, bertan sortu zela. Brontze arokoa proto-euskara izango zen, baina euskara.

30. Giza hezur zaharrena, Lezetxikikoa

- **Erref**: BRS-041/006
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:07:45. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Gizakiaren hezur zaharrena Lezetxikin aurkitutakoa da. Berak aurkitu zuen. Ramontxo Elosegi eta bera zeuden indusketan, eta Barandiaran bataio batera joana zen. Lezezitxiko kanpaina luzatu egin zuten, aurkikuntza hori eta gero. Emakume baten beso-hezurra da. 140.000-180.000 urte izango ditu. Neanderthal aurrekoa da, eta Atapuercakoen antza du. Neardenthalen haginak eta hezurrak beste toki batzuetan ere aurkitu dituzte. Kobazuloak aipatzen ditu.

31. ADN frogekin lotutako aurrerapenak

- **Erref**: BRS-041/008
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:11:51. **Bukatu**: 00:13:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:
Nearthendala eta Homo Sapiensa hibridatu egin ziren. Ezetz uste izan da luzaroan, baina ADN bitartez konfirmatu da. Logikoa ikusten du Altunak, 10.000 urtean elkarrekin bizi izan zirelako. Barandiaranen garaian, arrazak aztertzeko kraneometria erabiltzen zen, gero odol taldeena etorri zen. Orain ADNa da froga. Concepción de la Rua irakaslea aritzen da horretan.

32. Euskal tipo biologikoa

- **Erref**: BRS-041/009
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:13:51. **Bukatu**: 00:17:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Euskal Herrian odol mota bat gailentzen da, 0 negatiboa, baina arrazari buruz ezin da hitz egin, Hitlerrez geroztik. Arrazak desberdinak direla esatea ez da arrazakeria. Euskal tipo biologikoa badago, eta Australian ikusiz gero ere igartzen dugu euskalduna dela. Ezaugarriak azaltzen ditu. Hibridazio handia dago orain, baina lehen errazago antzematen zen.

33. Arrazen hibridazioa eta eboluzioa

- **Erref**: BRS-041/010
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:17:17. **Bukatu**: 00:19:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Donostiako Usandizaga institutoko irakaslea zela, oso erraza zen zortzi abizen euskaldun zituzten ikasleak topatzea; gaur egun zaila da. Hibridazioa begibistakoa da mundu osoan. Salbuespen moduan pigmeoen kasua aipatzen du.

34. Giza aztarna zaharrenak, Euskal Herrian

- **Erref**: BRS-041/011
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:19:53. **Bukatu**: 00:21:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Lezetxikikoak dira giza aztarna zaharrenak. Ondorengo aztarnak zein diren. Aizpitarten, Errenterian, aurkitu dituztenak aipatzen ditu. 25.000 bat urte dituzte, Nearthendal ondorengoak dira. Madalein garaikoak ere badaude, duela 12.000 bat urtekoak. Eta Brontze arokoak, berriz, asko.

35. Animalia aztarna zaharrenak, Euskal Herrian

- **Erref**: BRS-041/012
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:21:50. **Bukatu**: 00:24:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:
Animalien aztarnak askoz zaharragoak dira. Hezur zaharrenak dinosauroenak izango dira, Errioxan aurkitutakoak. Ugaztunen zaharrenak Olaztin agertu ziren hipopotamo haginak dira. Maximo Ruiz de Gaonak ikertu zituen.

36. Errinozeronteak, elur oreinak, leizeetako lehoia...

- **Erref**: BRS-041/014
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:24:28. **Bukatu**: 00:27:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:
Euskal Herrian bizi izan diran animaliak: errinozeronteak (klima berokoa eta hotzekoa, ileduna), elur oreina, glotoia... Leizetako lehoia, tigrearen antzekoa, eta lehoi arrunta. Arantzazuko apaizgai batek aurkitu zuen leizetako lehoiaren hezurdura, eta hartza zela pentsatu zuen.

37. Ekaingo kobazuloko irudien aurkikuntza

- **Erref**: BRS-041/015
- **Iraupena**: 0:04:48. **Hasi**: 00:27:24. **Bukatu**: 00:32:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Ekain Azpeitiko bi gaztek aurkitu zuten. Kobazulo bila aritzen ziren asteburuetan, eta aurkitutakoa Aranzadira eramaten zuten. Sastarrain baserrian izan zuten kobaren berri. Irudiak nola aurkitu zituzten. Ikustera joan ziren. Aurretik, Aralarren irudi faltsuak ere agertu ziren. Kanpaina berria egin dute Ekainen, eta aurkikuntza gehiago izan dira.

38. Ekain santutegia zen

- **Erref**: BRS-041/016
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:32:12. **Bukatu**: 00:33:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Ekain santutegia zen, ez bizilekua. Tresna bakarra aurkitu dute, harri baten gainean, sinbolo moduan. Kanpoan 5.000 pieza aurkitu zituzten, baina santutegi barruan bakar bat ere ez. Garaiko sinesmenekin lotuta dago.

39. Aurkikuntza interesgarria Frantziako koba batean

- **Erref**: BRS-041/017
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:33:42. **Bukatu**: 00:34:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Frantziako koba batean, galeria berria aurkitu dute, eta han buztinaren gainean emakume baten eta ume baten oin markak daude; bisontearen irudi baten aurreraino doaz, eta buelta ematen dute.

40. Ekaingo erreplika, museoa

- **Erref**: BRS-041/018
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:34:50. **Bukatu**: 00:37:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Ekain zaldien koba da. Ez zuten nahi Ekain Altamira bihurtzea. Erreplika egitea erabaki zuten. Gonzalez Txabarrik eman zion bultzada proiektuari. Museoaren martxa.

41. Ekaingo ehiztarien bizimodua

- **Erref**: BRS-041/019
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:37:21. **Bukatu**: 00:40:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Ekainen bizi izan zirenen bizimodua: ehiza eta basalandareak biltzea. Oreinkumeak eta haien amak harrapatzen zituzten. Denboraldi bat egiten zuten han, udara partean. Agertutako tresnak ehizarako dira, etxerako tresna gutxi daude.

42. Marizuloko artzaina

- **Erref**: BRS-041/021
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:40:56. **Bukatu**: 00:44:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Marizulo Labordek aurkitu zuen, Urnietan. Indusketa zeintzuk egin zuten. Gizaki baten hezurdura agertu zen, eta animalia hezurrak: zakurra eta arkumea. Buru-hezurra falta zen. Ondorioztatu daiteke artzaina zela, eta erritualen bat egin zutela. 5.000 urtetik gora ditu, Neolito garaikoa da.

43. "Ximonero" hitza

- **Erref**: BRS-041/023
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:44:47. **Bukatu**: 00:46:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
"Ximonero" hitza erabiltzen dute Berastegin monagiloa edo akolitoa esateko. Hitz hori nondik datorren, bere teoria azaltzen du.

44. Jean Auel idazlea, Ekainen bisitan

- **Erref**: BRS-041/025
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:46:34. **Bukatu**: 00:49:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
"Haitzuloetako hartzaren klana" idatzi zuen idazleari, Jean M. Aueli, berak erakutsi zion Ekain. Emakumea hunkitu egin zen irudien aurrean. Hegaldi pribatuan etorri zen; aberatsa zen ordurako. Anekdota kontatzen du. Ipar Ameriketako partikular batek 150.000 pezeta bidali zituen.

45. Emaztea lankide

- **Erref**: BRS-041/027
- **Iraupena**: 0:04:06. **Hasi**: 00:49:57. **Bukatu**: 00:54:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emaztea, Koro, nola ezagutu zuen. Bere ikaslea izan zen institutoan, eta gero hezurrak klasifikatzen laguntzen hasi zen, beste ikasle batzuekin batera. Elkarrekin egin dute lana geroztik. Iritegi aztarnategia. Animalia hezurrak nola lortzen dituzten; lur azpitik ateratzea ez da lan gozoa izaten, sarritan.

46. Berastegiko euskara; "deus ez" hitzen jatorria

- **Erref**: BRS-041/030
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:56:41. **Bukatu**: 00:59:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Berastegiko euskara nolakoa den. Tolosakoa diferentea da. Hitz amaieran -e artikulua darabilte. J nola ahozkatzen duten. "Ezer ez" esaten dute, eta ez "deus ez". "Deus ez" hitzak nondik datozen, bere teoria. Alfabetoaren hasieran eta bukaeran, Deus esaten zuen aitonak.

47. Peru eta Mariaren ipuina

- **Erref**: BRS-041/032
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 01:00:03. **Bukatu**: 01:05:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Peru eta Mariaren ipuina kontatzen du, aitonak kontatzen ziona. Tolosara feriara joan zen, lehenengo txerrikumea ekartzera, gero pitxarra, ondoren manteka eta azkenik gatza.

48. Ipuinak, sutondoan

- **Erref**: BRS-041/034
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 01:05:31. **Bukatu**: 01:06:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:
Aitonak kontatzen zuen Peru eta Mariaren ipuina; baita beste senide batzuek ere. Sutondoan, afalostean kontatzen ziren halakoak.

49. Teodosioren ipuina

- **Erref**: BRS-041/036
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 01:06:26. **Bukatu**: 01:10:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:
Teodosio Goñikoaren ipuina. Ezkondu zenean, gerrara joan zen, eta han zegoela emazteak engainatu egiten zuela esan zioten. Etxera itzuli, eta, ilunpetan, gurasoak hil zituen, bere logelan zeudelako lotan. Kateak jarri zizkioten, penitentzia moduan, eta Aralarrera joan zen. Herensugea agertu zitzaion. Aralarko ermitan daude kateak. Ipuin hori zein liburutan dagoen jasota.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com